



## Aralarreko Parke Naturala



**Lizarrustiko** ganean (Ataundik barrena) kokatzen den Parkearen Interpretazio Zentrura bideratuko gara lehenik eta behin. Diaporama ikusi ondoren, Aralarreko mendizerran zehar hainbat ibilaldi ditugu egiteko: Lareoko urtegia, monumentu megalitiko ibilbidea, Jentilbaratza gaztelua, hainbat gailur eta mendixka. Itzuleran, **Ataunen**, hiru auzo dituen Gipuzkoako herririk luzeenean geldialdi bat egingo dugu (San Martin, San Gregorio eta Aia); hemen bere hiru elizak, Zubikoeta Jauregia, Zelabear Dorrea eta Sara Etxea (Joxemiel Barandiaran antropologoaren etxebizitza) bisitatuko ditugu.

IBILBIDEA 2